



OSASUN PUBLIKOKO, IKERKUNTZAKO ETA EKIPAMENDU MEDIKOEN HORNIDURA BERMATZEKO NEURRIAK

-EBko egiturak aktibatzea, erantzun global koordinatua emateko

Europar Batasuneko Kontseiluak **Krisiei Erantzun Politiko Integratua** emateko dispositiboa aktibatu du, EBko eragile nagusiak bilduta.

Batzordeak **Krisia Koordinatzeko Komitea** aktibatu du, Batzordeko sail eta zerbitzu eskudun guztien eta EBko agentzien artean sinergiak sortzeko. Janez Lenarčič komisarioa du buru, EBko larrialdiko erantzunaren koordinatzaile gisa. Europako koordinazio talde bat ere sortu du politika mailan, gehien kaltetutako esparruetako komisario arduradunek osatua.

Informazio medikoa zabaltzea: **Gaixotasunen Prebentzio eta Kontrolerako Europako Zentroa (ECDC)** da agerraldiaren egoera eta arriskua etengabe ebaluatzen dituen EBko agentzia, Batzordeari eta estatu kideetako osasun-agintariei informazioa emanez, eta eguneratzeak egunero argitaratzen ditu.

Informazio-trukea: estatu kideek alertak eta informazioa denbora errealean trukutzen dituzte, osasun-agintarien ardurapeko **Alerta goiztiarreko eta Erantzuteko Sistemaren (SAPR)** bidez. Segurtasun Sanitarioko Batzordea aholku-talde informal bat da, Batzordeko ordezkari bat buru duela, eta prestatzeko eta erantzuteko neurrien koordinazioa sendotzeaz arduratzen da.

COVID-19ri buruzko kontsulta-panela: hainbat estatu kideetako zazpi epidemiologok eta biologok osatzen dute, gaiari eta arriskua kudeatzeko neurri koordinatuei buruzko Europako gida zientifiko bat formulatzeko.

Larrialdiak kudeatzea eta koordinatzea: Batasuneko Babes Zibileko Mekanismoaren eta bere Larrialdiei Erantzuteko Koordinazio Zentroaren bidez.

-Tratamenduen eta txertoen ikerketa sustatzea

Batzordeak Horizonte 2020 Programaren lan-programa eguneratu du, farmaziako ikerketa- eta berrikuntza-proiektuen finantzaketa handitzeko: -47,5 milioiko larrialdi-deialdian 17 proiektu hautatu dira txertoak, infekzioaren diagnostikoa eta tratamendua garatzeko. -Ikerketa-proposamenen ezohiko deialdia egin da Sendagai Berritzaileei buruzko Ekimenaren esparruan (IMI), EBk eta farmazia-industriak parte hartzen duten elkarte publiko-pribatua. Hemen, tratamendu eta diagnostikoetarako eskala handiko 8 ikerketa-proiektu hautatu dira, eta 117 milioi euro eman dira. -80 milioi euro arteko finantza laguntza EIBren mailegu gisa, Tubingako (Alemania) CureVac Enpresari, zeinek txerto berritzaileak garatzen baititu. -350 milioi euro ETEentzat eta sortzen ari diren enpresentzat, Berrikuntzarako Europako Kontseiluaren Azeleratzailearen esparruan irtenbide berritzaileak aurkitzeko. -Emakume



berritzaileentzako neurri espezifikoak, eta unibertsitateen ikerketa- eta berrikuntza-dimentsioari laguntzea.

-Ekipo medikoen kontratazio publiko bateratua

Europako Batzordeak hainbat lizitazio bateratu jarri ditu abian estatu kideekin, norbera babesteko ekipamenduak (NBE) eta osasun-erantzuneko mediku-produktuak eskuratzeko (maskarak, betaurrekoak, arnagailuak, proba-kitak ...), Babes Zibileko RescUE-Esparruaren bitartez.

-Horniduren eta ekipoen rescEU-stockpile erreserba estrategikoa sortzea

Batzordeak rescEU-stockpile erreserba estrategikoa sortzea erabaki du, ekipamendu medikoen Europako erreserba komun bat, hala nola haizagailuak, NBE, txertoak eta terapiak, eta laborategiko hornidurak. Batzordeak biltegiatze-gastuen % 90 finantzatuko du, eta ekipoen banaketa kudeatuko du, gehien behar den tokietara iristen direla bermatzeko, Babes Zibileko RescUE-Esparruaren bitartez.

-Europako estandar eskuragarrietarako sarbide librea mediku-hornidurak fabrikatzeko

Gailu medikoen ekoizpen-gaitasuna erraztu eta handitzeko eta haien erabilgarritasuna maximizatzeko, Batzordeak eta normalizaziorako Europako erakundeek salbuespenez erabaki zuten estandarren eskubideak liberalizatzea eta enpresa interesdunen eskura doan jartzea zenbait osasun-materialetarako eta norbera babesteko ekipamenduetarako Europako arau batzuk. Arau horien erabilerak aukera emango die interesa duten operadore eta fabrikatzaileei beren ekoizpena egokitzeko. Horrela, Euskadin, bai LHko zentroak eta bai 3D inprimagailuak dituzten sormen-industriak 3Dko kalitatezko osasun-materiala ekoizten ari dira (NBE eta arnagailuak). Gainera Batzordeak ekintza hori nabarmendu du LHren esparruko neurriei/estrategiei dagokienez Europako jardunbide egoki gisa.

-Material medikoaren estandar harmonizatuak berrikustea, premiazko beharrei erantzuteko.

Batzordeak erabakiak hartu ditu material kritikoaren egokitasuna ebaluatzeko prozedura erraztuko duten arauak harmonizatzeko. Arau horien erabilerak aukera emango du kalitate handiko gailu medikoak fabrikatzeko, soluzio tekniko eguneratuenekin, aldi berean EBko legeriaren osasun- eta segurtasun-baldintzak betez.

-EBtik kanpo esportatzeko baimenaren beharra

Norbera babesteko ekipamenduen hornikuntza babestearren, ekipo horiek Europar Batasunetik kanpora esportatzeko, estatu kideek esportatzeko baimena eman beharko dute. Europako herrialde jakin batzuk salbuetsita geratzen dira. (2020ko martxoaren 14ko Batzordearen 2020/402 (EB) Betearazpen Erregelamendua, produktu jakin batzuen esportazioa esportazio-lizentzia baten mende jartzen duena).

-Europar Batasunaren Larrialdietarako Laguntza Tresna, osasun-sektorearen alde

EBren aurrekontutik 3.000 milioi euro mobilizatuko dira; horietatik 2.700 milioi Larrialdietarako Laguntza Tresnaren bidez bideratuko dira, eta 300 milioi, berriz, rescEUko ekipo medikoen ahalmenaren bidez. Estatu kideek, bai eta partikularrek, fundazioek eta partaidetzazko finantzaketarako ekintzek ere, ekarpen gehigarriak egin ahal izango dituzte. Era honetan, Batzordeak honako hauek egin ahal izango ditu: • Estatu kideen izenean zuzenean erosi edo larrialdietarako laguntza kontratatu, eta ekipo medikoak banatu, hala nola maskarak eta arnasgailuak; • Finantzarioki lagundu eta koordinatu premiazko beharrak, hala nola mugaz gaindiko eskualdeetan ekipo medikoak eta pazienteak garraiatzea; • Kanpainako ospitale mugikorak eraikitzen lagundu.

-Hirugarren herrialdeetako osasun-produktuen eta babes-ekipoen inportazioaren gaineko aduana-zergak eta BEZa aldi baterako etetea

Batzordeak onartu egin ditu estatu kideek aurkeztutako eskaerak, hirugarren herrialdeetako osasun-produktuen eta babes-ekipoen inportazioaren gaineko aduana-zergak eta BEZa aldi baterako etetea, koronabirusaren aurkako borrokan laguntzeko. Horrela, finantza ikuspegitik errazagoa izango da medikuek, erizainek eta gaixoen premiaz behar dituzten ekipamenduak lortzea.

-Lantokira segurtasunez itzultzeko orientabideak

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak (EU-OSHA) orientabide batzuk argitaratu ditu langileak lantokira ingurune seguru eta osasungarri batean itzuli ahal izateko. Orientazioek hainbat esparru hartzen dituzte: Arriskuen eta neurri egokien ebaluazioa, Langileen parte-hartzea; Gaixo dauden langileen arreta; Etorkizunerako plangintza eta Ikaskuntza; Etengabeko informazio ona; eta Sektorekako eta lanpostukako informazioa.

<https://osha.europa.eu/es/publications/covid-19-back-workplace-adapting-workplaces-and-protecting-workers/view>

-Ikerketa-datuak trukatzeko Europako plataforma berria

Europako Batzordeak eta bere bazkideek COVID-19ri buruzko datuen Europako plataforma bat sortu dute. Plataforma horri esker, azkar bildu eta partekatu ahal izango dira DNA sekuentziak, proteina-egiturak, ikerketa aurreklinikoak datuak, saiakuntza klinikoetakoak eta datu epidemiologikoak. Plataforma ERAvsCorona Ekintza Planaren parte da, eta mugarri garrantzitsua da Zientzia Irekiaren Europako Hodeiaren eraikuntzan. Plataforma horri esker, ikertzaileek koronabirusari buruzko emaitza ugari biltegitatu, partekatu eta aztertu ahal izango dituzte, informazio genomikotik hasi eta datu mikroskopiko eta klinikoetaraino.

<https://www.covid19dataportal.org/>

-"Europako Ikerketa Esparruko (ERA) korona plataforma" berria abian jartzea.

Plataformak denbora errealean informatzeko eta eguneratzeko leihatila bakar gisa funtzionatzen du, koronabirusarekin lotutako ikerketa- eta berrikuntza-programen egungo eta balizko onuradunentzako finantzaketa-aukerei buruz. Plataformak finantzatutako eta abian dauden proiektuei buruzko informazioa, H2020 deialdien



epeen luzapenari buruzko informazio eguneratua eta ohiko galderetarako estekak (faq) biltzen ditu, koronabirusak eragindako deialdi eta diru-laguntzetarako.

-Batasunean saiakuntza klinikoan perturbazioak arintzeko orientabideak

Batzordeak zenbait orientabide biltzen dituen gida bat argitaratu du, Batasunean saiakuntza klinikoan jarraitutasuna bermatzeko eta tratamenduen eta txertoen bilaketan ikerketa klinikoaren nahasmenduak arintzeko. Batasunaren datu-basean (EudraCT) koronabirusari buruzko berrehun saiakuntza kliniko baino gehiago erregistratuta badaude, orientabide hauek egungo egoerari erantzuteko neurri erraz eta malguei buruzko gomendioak jasotzen dituzte, eta Batasun osoan saiakuntza klinikoetan parte hartzen duten pazienteek sendagaiak jasotzen jarraitu ahal izatea bermatzen dute. Gomendio nagusiak honako hauen inguruan dira: medikamentuen banaketa saiakuntza klinikoak egiten zaizkien pazienteei; iturri-datuen urruneko egiaztapena; eta agintariekin komunikatzeko modua.

-Osasun-arloko profesionalen zirkulazio askeari eta prestakuntzaren gutxieneko harmonizazioari buruzko orientabideak, osasun-arloko langileen urritasunari aurre egiten laguntzeko

Batzordeak Komunikazio bat argitaratu du, EBko estatu kideei osasun-arloko langileen eskasia hobetzeko orientabideak ematen dizkiena, osasun-arloko langileen kalifikazio profesionalen aintzatespena bizkortuz eta formakuntzan dauden sendagileei eta erizainei beren lanbidean jarduteko aukera ematen dieten arauak argituz.

Komunikazioak gai praktikoak jorratzen ditu lanbide-kalifikazioak aitortzeko Zuzentaraua ezartzeari dagokionez. Zuzentarau horrek Europa barruan profesionalen zirkulazio askea errazteko esparru bat ezartzen du, mediku eta erizainak barne. Zehazki, orientabideek ezartzen dute nola bizkortu ditzaketen estatu kideek kalifikazioak elkarri aitortzea errazteko prozedurak, Zuzentarauak emandako malgutasunen ildotik. Gainera, argitzen du estatu kideek nola berma dezaketen medikuen eta erizainen prestakuntzarako gutxieneko betekizunei buruzko Zuzentarauaren arauak errespetatu ahal izatea, ikasleek beren prestakuntza osatu ezin izan dutenean, koronabirusaren krisiaren ondoriozko etenen ondorioz, baita arau horien salbuespen bat eskatzen ere.